


Edukien eta Hizkuntzen Ikasketa Integratuaren (EHII) hizkuntza-dimentsioa

Keith Kellyren arabera, hizkuntza eta hizkuntzan arreta esplizitua jartzea dira EHIIren metodologiaren ardatzak


EHIIren arloan eztabaida handia dago ikasketaren ikuspegi horretan hizkuntzak duen eginkizunari buruz. Zenbait irakaslek arreta gutxi jartzen diote atzerriko hizkuntzari ikasgelan, uste baitute beren lana atzerriko hizkuntzaren bidez irakastea dela, eta ez atzerriko hizkuntza garatzea. Artikulu honek EHII hizkuntzak duen eginkizunari buruzko eztabaida agertzen du, eta EHIIren metodologiaren ardatzak hizkuntza eta hizkuntzan arreta esplizitua jartzea direla argudiatzen du.



1. irudia: Testuinguru-laguntzaren eta ahalegin kognitiboaren mailak hizkuntzaren arloko atazetan eta jardueretan (Cummins, 2001).

Beste dimentsio baten beharra

Denbora luzean erabili dut diagrama hori, eta, oraindik ere, iruditzen zait alderdiren bat falta zaiola edo ez duela forma egokia EHIIren egoerei aplikatzeko. Hizkuntza ardatzetan txertatuta dagoela irudikatu dut; adibidez, “testuinguruaren laguntza” ardatzak testuinguruaren zati gisa dauka atzerriko hizkuntza. Baina arazoa egon liteke ikasleak ikasi beharreko arloa ezagutu bai, baina atzerriko hizkuntza gai horretan erabiltzen ez badaki (entzuten, irakurtzen, hitz egiten, idazten ez badaki). Testuinguru eta erronka kognitiboa irudikatzen dituzten bi ardatzen ordez, hiru ardatz behar ditugu, horietako batek “badu AH”/ “ez du AH” irudika dezan. Cummins-ek esaten zuen bezala hizkuntza diagrama osoaren ardatz guztietan jarri ordez, nire ustez, kanpora atera behar da, eta bere ardatza eman behar zaio.



2. irudia: Ahalegin kognitiboari eta testuinguruari hizkuntzaren dimentsioa gehituta

Ikasleei buruzko informazio gehiago


Bigarren hizkuntzari loturiko gaitasunaren dimentsioa gehituta –hirugarren dimentsioa–, ikasleak zehaztasun handiagoz deskribatzen hasiko gara; eta, hori eginez, ikaskuntza prestatzeko informazio gehiago jasoko du irakasleak. Hirugarren dimentsioak gai interesgarriak mahaigaineratzen ditu EHIIren ikasketa-testuinguruari buruz. Demagun gaia ezagutzen duen ikasle bat dugula, edukiaren aurrezagutza baduela, eta aldeaz aurretik antzeko kontzeptuak ezagutzen dituela; hau da, ikaskuntza-testuinguruaren laguntza handia duela. Horrez gain, ikasle horrek antzeko atazak egin izan ditu hainbat arlotan, eta orduan erabilitako trebetasunak orain egin behar dituen atazetan aplikatu ditzake; beraz, ez du erroka kognitiborik. Azkenik, ikasle horrek ez du arlo horretako ezagutzarik H2n edo ataza egiteko behar den atzerriko hizkuntzaren ezagutzarik. Ikasle horri buruz, honako galdera hau sortuko zaio irakasleari, besteak beste: “Atzerriko hizkuntza ez jakiteak erroka kognitiboa handitzen al du? Galdera horren erantzuna “bai” bada, hurrengo galdera hau litzateke: “Nola lagun diezaioket ikasle horri edukia eta ataza lantzean izan ditzakeen hizkuntza-premiak betetzen?”. Aldiz, lehen galderaren erantzuna “ez” bada eta ikasleak hizkuntza aise ulertzen badu, agian irakasleak zenbait erabaki estrategiko hartu beharko ditu, edukiari eta atazari eskaini beharreko denborari, gaia bizkorrago lantzeari eta erroka handiagoa ekarriko duen beste zerbait irakasteari buruz.

Ikasleek izan ditzaketen profilen adibideak

Alegiazko ikasleak deskribatzen hasiko gara orain. Jarrai dezagun ikasleei buruzko galderak egiten eta atzerriko hizkuntza baten bidezko ikaskuntzarako prestatzen.

Ikasleen ezaugarriak

- A - ez du erronka kognitiborik, ez du gaia ezagutzen, badu H2
- B - ez du erronka kognitiborik, ez du gaia ezagutzen, ez du H2
- C - ez du erronka kognitiborik, gaia ezagutzen du, ez du H2
- D - ez du erronka kognitiborik, gaia ezagutzen du, badu H2
- E - erronka kognitiboa du, ez du gaia ezagutzen, badu H2
- F - erronka kognitiboa du, ez du gaia ezagutzen, ez du H2
- G - erronka kognitiboa du, gaia ezagutzen du, ez du H2
- H - erronka kognitiboa du, gaia ezagutzen du, badu H2



3. irudia: Ikasleak ikaskuntzaren hiru dimentsioetan kokatzea

Honela deskriba dezakegu A ikaslea: A ikasleak ez du erronka kognitiborik, ez du gaia ezagutzen, baina badu ataza egiteko behar duen H2ren ezagutza.

Ikaskuntzari buruzko galdera egokiak egitea


Galdera asko egin ditzakegu goiko diagraman kokatutako ikasleei buruz. Galderak ikasgela kokatuta dagoen kulturaren arabera izango dira, hein handi batean. Halere, bada EHIIren testuinguru gehienetarako garrantzitsua den galdera bat: E ikaslea EHIIko ikasle perfektua al da? Gure ikasle guztiek beren curriculumeko irakasgaiak atzerriko hizkuntza batean ikasteko behar duten H2 guztia jakitea nahi al dugu? Erakargarria izan arren, oso zaila da egoera hori izatea hainbat testuingurutan. H2n gaitasun handia izanda ere, irakaslearen gogoeta irakasgaiaren hizkuntzari aplikatzeko beharra egongo da agian. Azken finean, irakasgaiak askotariko testu motak eta egiturak lantzen dituzte, eta litekeena da ikasleek, H2n duten gaitasuna edozein izanda ere, horiek lantzeko eta ekoizteko aholkua eta laguntza behar izatea, galdetzen zaienean. Kontuan izan testu mota eta egitura horiek ez dituztela mugak bere horretan gaintzen, eta, beraz, litekeena dela ikaskuntzaren “ama-kultura”

ikasleak horiei buruz dakiena bestelakoa izatea ikaskuntzaren atzerriko hizkuntzako kulturaren.

Goiko diagramaren beste arazo bat kontzeptu berriak dira. Kontzeptu berriak edukiaren ardatzean jarri behar genituzke? Ala eskaera kognitiboaren ardatzekoak dira? Ardatz batean zein bestean jartzearen aldeko argudioak eman daitezke. Agian, EHIIIn terminologia berria behar dugu, eskolak prestatzeko informazioa lortze aldera ikasleen arteko aldeak deskribatzeko. Cumminsen diagramatik are urrunago aldentzeko arriskua badago ere, diagrama berri bat eta hizkuntza erabat berria behar dugula uste dut.

Dimentsio berriak eta hizkuntza berria

Phil Ball-ek, EHII laburtzen duten hasierako lau artikuluko sailean, EHIIrako prestatzean aintzat hartu beharko liratekeen hiru termino aipatzen ditu. EHIIren ikaskuntzak 1) gaitasun kontzeptualak, 2) prozedura-gaitasunak eta 3) hizkuntza-gaitasunak behar direla iradokitzen du. Deskribapen horrekin bat nator, eta sinplea eta egingarria delako gustatzen zait batez ere. Aplikatu diezazkiogun termino horiek EHIIren Gaitasunen Kuboari.



4. irudia: EHIIren Gaitasunen Kuboa

Diagrama horren bitartez, gure ikasleak kuboaren sektore batean koka ditzakegu, haien gaitasunetan eta behar izango dituzten gaitasunetan oinarrituta. Kuboa kontuan hartuta, EHIIko eskoletan galdera egokiak egin ditzakegu ikasleei buruz, gure irakaskuntzarako informazioa lortzeko eta ikaskuntzaren hiru dimentsioak errespetatzeko. a) Prozedura-gaitasunei buruz galde dezakegu. Gure ikasleek ataza burutzeko behar diren gaitasun praktikoak badituzten ala ez erabaki dezakegu. Adibidez, Biologian laborategiko lanean esperimendu konplexuak egiteko prozedura-gaitasunak badituzten. Edo gaitasun sinpleagoak, talde txiki batean eztabaida egiteko eta ikasle guztien aurrean azalpena emateko. b) Gure ikasleek curriculumaren arlo zehatz bat lantzeko behar dituzten gaitasun kontzeptualei buruz galde dezakegu.

Zenbateraino ulertu dituzten ideia nagusiak. Zenbateraino dira abstraktuak hurrengo gaiko kontzeptuak? H1 erabili behar izango al dut? c) Curriculumeko arlo bat lantzeko atzerriko hizkuntzako ikasleek zer behar duten jakin dezakegu, kontzeptuetarako eta atazetarako beharko duten hizkuntza barne. Horrek ikasgaiaren baitan ekoizpenerako behar den hizkuntza edo hizkuntza-gaitasun hartzaileak aztertzen lagun dezake.

Hizkuntza jakiteak laguntza egokia ematea adierazten du

Gure ikasleak EHIIren Gaitasunen Kuboan kokatu ondoren, erabaki estrategikoak hartzen has gaitzke gure eskoletan izango ditugun ikaskuntza-esperientziei laguntzeari dagokionez. EHIIren prozesu horren erdian dago atzerriko hizkuntza. John Clegg-ek onestopclil webguneko metodologiari buruzko atalean idatzitako artikulu batean, [plangintza estrategiko](#) zehatz horri eta hizkuntzaren arloko galderei buruz jardun zuen. Cumminsen diagrama oso garrantzitsua da, ikaskuntza elebidunaren prozesuan txertatuta baitago hizkuntza. Hala ere, EHIIIn, ikaskuntzaren dimentsioak zehaztasun gehiagorekin bereizi behar dira, atzerriko hizkuntza bera ere sartzeko; hartara, ikasleek izan ditzaketen erronkak ezagutu ahal izango dituzte irakasleek, esaterako erronka linguitikoak, eta ikasgelan laguntza egokia eman ahal izango dute.

Keith Kelly, 2009ko urria

Keith Kelly freelance hezkuntza-aholkulari gisa aritu da lanean, 2003ko abuztutik, atzerriko hizkuntzaren bitartez edukiak irakastea ardatz duten hezkuntza-proiektuetan batez ere. Esperientzia handiko irakaslea eta irakasleen prestatzailea da; Science Across the World taldeko kidea da, eta Novergiako Institute for Language Education (NILE) institutuko irakasle elkartua. John Cleggekin batera, NILEko eta Leeds-eko Metropolitan University-ko EHII masterreko moduluaren egilea da. Gainera, Forum for Across the Curriculum Teaching (FACT) foroaren sortzailea eta koordinatzailea da, eta Macmillan [Science and Geography Vocabulary Practice Series](#) sailaren egilea ere bada.